



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko martxoaren 9a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Batzordeak onetsitako irizpena (9. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako irizpena (11. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babes emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jarri ditzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D ereduan ikasteko modua izan dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio ziurta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan errekurtsioa jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikus-entzunezkoen Plana presta dezan eta Euskalerria Irratiari behin-behineko lizentzia eman diezaion. Osoko Bilkurak bazter utzia (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arazoiei buruzko azterlan bat egin ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (24. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zainketa aringarriari buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan. Mozioa erretiratzea (24. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zergatik aldatu diren “Nekazaritza ustiategiak modernizatzeko” eta “Nekazari gazteak beren gain hasteko” laguntzak emateko baldintzak, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (25. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen, Iberdrolaren akzioduna denez, izan dezakeen eragina baliatzeko Altsasuko Gamesa enpresak aurkezturiko enpleguko erregulazio-espeditentea ekidite aldera, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (25. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen ezer egiteko hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren eta sorospen-osagarrien arloetan langabezian dauden pertsonen dagokienez, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren testua aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

109.2. artikulua osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dator bat hirugarren lerrokadan ezarritakoarekin, eta horrek alperreko gatazka dakar.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Honela geldituko da: "Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko Auzitegiko Medikuen Kidegoko eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidego eta eskaletako langileei Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua aplikatuko zaie".

Zioak: Gainontzeko funtzionarioak legez sar-tzeak dakartzan arazoak, berriz ere.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

109.3 artikulua amaieran ondokoa gehitzeko zuzenketa: "(...) eta bereziki kidego nazionalen izaera, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 470. artikuluko 2. idatz-zatian jasotzen dena."

Zioak: Argi eta garbi jasotzea langile horien araubide juridikoa.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

109. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Aipaturiko lerrokadaren amaieran honako testua gehitzea proposatzen da:

"(...) eta bereziki kidego nazionalen izaera, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoko 470. artikuluko 2. idatz-zatian jasotzen dena."

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da hori jasotzea.

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Honela geldituko da 110. zuzenketa: "Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzio publikoko lanpostuen kidego eta eskalen antolamendua, hautapena,

barne sustapena eta betetzea arautuko dira horri buruzko araudi berariazkoarekin bat eta kidegoei buruz Estatuak egiten duen sailkapena errespetatuz.”

Zioak: Kidego nazionalak direla berrestea.

6. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

110. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondokoa gehitzea proposatzen da lerrokadaren bukaeran:

“kidegoei buruz Estatuak unean-unean egiten duen sailkapena errespetatuz.”

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da hori jasotzea.

7. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. Honela geldituko da 112. artikulua: “Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lanbide jardueraren antolamendua Estatuko araudiak arautuko du.”

Zioak: Ez da bidezkoa, subsidiarotasun klausula dela eta.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

113. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lanpostu horien deialdiak nazio osorako egiten dira, hain zuzen ere kidego nazionalaren izaera duelako, eta Ministerioarekiko koordinazioa Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoari jarraikiz egin behar da.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 113.1 artikulua aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“1. Nafarroako Justizia Administrazioaren zerbitzuko lan publikoaren eskaintza Ministerioak onetsiko du, Nafarroako Gobernuak prestatu eta proposatu eta gero.”

Zioak: Eskumenen arloan indarrean dauden arauak bete behar dira.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

113. artikuluari 2. idatz-zati edo lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Justizia Ministerioko organo eskudunak egiten du karrerako funtzionarioen izendapena, justizia arloko eskumena esleitua duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuak proposatuta.”

Zioak: Ministerioari dagokio langile horiek izendatzea, eta Nafarroako Gobernuaren proposamenari jarraikiz egitea arautu nahi da.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

113. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hirugarren lerrokada gehitzea proposatzen da. Hauxe da:

“3. Justizia Ministerioko organo eskudunak egiten du karrerako funtzionarioen izendapena, justizia arloko eskumena esleitua duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuak proposatuta.”

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da hori jasotzea.

12. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hirugarren atala, zeinak 114. artikuluko 1., 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzen baititu, honela geldituko da:

Nafarroako Justizia Administrazioari atxikitako funtzionarioen mugikortasuna Foru Administrazio-ko gainontzeko funtzionarioentzako arau berberei jarraikiz eginen da Justizia Administrazioaren barruan. Estatu mailako mugikortasuna alde biko-tasunaren printzipioari jarraikiz eginen da; halatan, funtzionario nafarrek izaera hori galduko dute baldin eta Nafarroatik kanpoko Justizia Administrazio-ko lanpostu bati atxikitzen bazaizkio eta lanpostu horri dagokion funtzionario-izaera bereganatzen badute.”

Zioak: Justizia Administrazio-ko funtzionarioak administrazio horren egiturari atxikitzeak bi muga ditu: estatu mailakoa –foru erkidegotik kanpoan dauden administrazioetara lekualdatzeko aukera ematen du horrek, eta halako kasuetarako aurreikusi behar da kasuan kasuko funtzionario-araubideari atxikitzea– eta Foru Administrazioaren esparruan lekualdatzeko eskubidearekin parekatzea.

13. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko hirugarren atala, zeinak 114. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen baitu, honela geldituko da:

“Nafarroako Justizia Administrazio-ko funtzionarioek Nafarroako Foru Komunitatean Justizia Administrazioetik kanpoko lanpostuak eskuratzen ahalko dituzte, estatutu honen II. tituluko IV. eta VII. kapituluetan ezarritakoarekin bat, lehengo lanpostura itzultzeari uko egin ondoren betiere, baldin eta eskuratu den lanpostuaren deialdia behin betikoa eta iraunkorra bada. Lanpostu horietan dauden bitartean, horien araubide berekiari men egin beharko diote.

Zioak: Parekatzeak eskatzen du Administrazioa prest egotea funtzionarioak lekuz alda daitezen; mugikortasun hori, ezinbestean, hobekuntza gisa hartu behar da, eta, hortaz, behin betiko lanpostu bat eskuratzeak berekin ekarri behar du lehengo lanpostua hutsik gelditzea, bitartekotasun iraunkor-rrak ekidite aldera.

14. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 114. artikulua 3. idatz-zatiaren amaieran ondoko testua gehitzea proposatzen da: “barruti judizial bakoitzaren batasuna errespetatuz.”

Zioak: Berrantolaketak ez du ekarri behar ezkuztuko zehapen-neurriak ezartzea edo lan-baldintzak nabarmen kaltetzea.

15. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 114. artikulua 3. idatz-zatiaren amaieran ondoko testua gehitzea proposatzen da:

“eta jatorrizko lanpostuaren administrazio-egoera estatutu honetan araututakoa izanen da.”

Zioak: Administrazio-egoera ziurtatzea, langile nazionalaren izaera galtzeari buruzko interpretazioak ekidinez.

16. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

114. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Aipaturiko lerrokadaren amaieran honako testua gehitzea proposatzen da:

“Lanpostu horietan dauden bitartean, horien araubide juridiko eta ordainsari-araubide berekiari men egin beharko diote, eta jatorrizko lanpostuaren administrazio-egoera estatutu honetako VI. kapituluaren araututakoa izanen da.”

Zioak: Gure ustez, beharrezkoa da hori jasotzea.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

115. artikulua osoa, bere hiru idatz-zatiak barne, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du ematen arrazoizkoa denik gai hori foru legean jasotzea, negoziazio kolektiboaren xede izan behar baitu.

18. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

115. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Justizia Administrazioari atxikitako langileen ordainsariak gainontzeko funtzionarioen parekoak izan behar dute, salbu eta lan berezien kasuan, esate baterako gardiena, bigarren xedapen iragankorrean xedatuari jarraikiz.

Arau honetan ezartzen diren egoerak ezartzea ez da funtzio publikoaren estatutuaren zeregina.

Areago, Nafarroako Gobernuako kontseilariak ez du horretarako eskumenik, eta larritzat jo litekeen esku-sartzea eroriko litzateke Justizia Administrazioari atxikitako funtzionarioek "helburuak" markatuko balizkie; izan ere, funtzionario horiek, definizioz, administrazio horren arduradunen menpe daude lanari dagokionez.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

115. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure ustez, artikulua hori ez da legean jaso behar.

20. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

117. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bigarren xedapen iragankorrek ezartzen du behar den garaian ezarriko direla guardia zerbitzuagatik ordainsariak eta, bitartean, Estatuko arauari jarraikiz ordainduko direla. 117. artikulua ez du araurik ematen, eta, hortaz, testuan sartzea okerbidera eramateko besterik ez du balio.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

118. artikulua osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Langile horien bateraezintasunen araubidea estatutu juridikoa dela ezartzen du Botere Judizialari buruzko Lege Organiko, eta errespetatu beharra dago.

22. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 120. artikulua amaieran honako testua gehitzea proposatzen da: "(...) estatutu honetako IV. tituluko I. kapituluaren ezarritakoarekin bat."

Zioak: Foru legearen testua hobetzen du.

23. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

120. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondokoa gehitzea proposatzen da lerrokadaren bukaeran:

" (...) estatutu honetako IV. tituluko I. kapituluaren eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren ezarritakoarekin bat."

Zioak: Uste dugu beharrezkoa dela hori gehitzea.

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarreko 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ezarrita daude kidegoen egoera eta mailak.

25. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. Honela geldituko da xedapen gehigarri bakarreko 2. idatz-zatia: “Nafarroako Gobernuak, bidezko foru dekretuaren bidez, langile horiei esleituko dizkie dagozkien ordainsari osagarriak, atzeraeraginezko ondorioekin 2010eko urtarrilaren 1etik aitzina.”

Zioak: Logikoa da urte naturalera eramatea foru legearen eragina.

26. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo xedapen iragankorra osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago zertan ezarri legez lehendik ezarrita dagoena, okerra eragin baitezake.

27. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Organo eskudunak arautuko ditu berariaz guardiako zerbitzuaren ordainsariak, eta, bitartean, estatuko araudia beteko da.”

Zioak: Lan berezia da, ez-ohikoa, eta araubide berariazkoa behar du.

Xedapen iragankorren bidez egin behar da horren lege-garapenaren aurreikuspena, eta ez artikuluen bidez; halatan, 117. artikulua ez du batere edukirik.

28. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen iragankor bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako Foru Administraziooko funtzionarioek Justizia Administraziooko lanpostuak eskuratzen ahalko dituzte, funtzio publikoari buruzko estatutu

honen II. tituluko IV. eta VII. kapitulueta ezarritako mugikortasun-arauekin bat.”

Zioak: Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako Justizia Administraziooko funtzionarioek eskubidea baldin badute Foru Administrazio barruko lanpostuak eskuratzeko, aukera bera eman behar da alderantzizko bidea egiteko ere.

29. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Foru legeko zioen azalpeneko 6., 7. eta 8. lerrokadak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Langile horiek ezin dira erabat integratu, “kidego nazionalak” diren aldetik estatutu juridiko berekia dutelako, eta araubide hori osatu egin daiteke, baina ezin da ordeztu, ez eta alde bakarreko erabakiz aldatu ere.

30. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 5. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Nafarroako Administrazio Publikoen (...) Laguntza Judizialeko Kidegoa” jarri orde, ondoko jarriko du: “Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua aplikatu ahal izateko beste kidego batzuetako langileak, langile horien kidego nazionalen izaeraren eta Justiziako zerbitzu publikoa ematearen ondoriozko salbuespenak salbu. Hona hemen aipatutako kidegoak: Auzitegiko Medikuen Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoa eta Laguntza Judizialeko Kidegoa.”

Orobat, “integrazio” jartzen duen lekuan “aplikazio” jarriko du.

Zioak: Asmoa da nahasbiderik ez egotea foru araubidea Justiziako langileei aplikatzearen eta eskumen banaketa aintzat hartu gabe langile haien erregulazioa egitearen artean; alegia, foru erkidegoaren eskumena bete ahal izatea estatuko auzitan jarri gabe.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 10. lerroaldea aldatzeko zuzenketa.

“(…) onesteko ahalmena” jarri ordeaz ondokoa jarriko du: “(…) onesteko ahalmena eta organo eskudunari, onets ditzan, igortzeko ahalmena?”

Zioak: Jakina da ezen lanpostuen homogeneotasunak, izaera nazionalekoak direnez, ezinezkoa egiten duela proiektuak proposatutakoa.

32. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 11. lerroaldea aldatzeko zuzenketa.

Ondoko esaldia kenduko da: “Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak Foru Administrazioaren oinarritzko egituretan guztiz integratuta daude; izan ere, Justizia Administrazioetik kanpoko lanpostuak betetzeko eskubidea aitortzen zaie, eta, halakoetan, lanpostu horien araubidearen mende daude.”

Zioak: Konstituzionaltasunari buruzko zalantzarik gabe edo/eta eskumen gatazkarik eragin gabe egin nahi baldin bada legea, hau da gatazka eragiteko adibiderik garbiena.

33. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari kenketa egiteko zuzenketa.

Ondokoa kentzea proposatzen da:

“Foru legeak osagarri bat aurreikusten du Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileek beren eginkizunetan jartzen dituzten dedikazio bereziaren eta errendimendu apartekoaren eta beste organo judizial batzuei ematen dieten laguntzaren ordain gisa. Osagarri hori aldi baterako izan da, kasu bakoitzean ezarritako plangintza eta helburuekin bat.”

Zioak: Gure ustez, alferrik dago zioen azalpenean.

34. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 14. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Langile horien bateraezintasunak, modu osagarrian bada ere, zehazten hasten bagara, bete-betea sartzen gara haien estatutu juridikoaren muinean, eta hori, Konstituzioak ezartzen duen legez, Ministerioaren eskumena da.

35. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 16. lerroaldea aldatzeko zuzenketa.

Zati bat kendu eta honela geldituko litzateke: “Xedapen gehigarri bakarrak konpentsazio pertsonal eta iragankorra ezartzen du, aurreko araubideari jarraikiz guztira jasotzen zituzten ordainsariak foru lege hau aplikatzearen ondorioz dagozkienak baino handiagoak hartzen dituztenentzat.”

Zioak: Kidego horiek estatutuaren muina ez ukitzea, ez baita beharrezkoa Foru Legeak bilatzen duen helbururako.

36. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 17. lerrokada kentzekoa.

Zioak: Estatuko araudia derrigorrez aplikatu behar da gai honetan; lerrokada horrek, beraz, konponbide baino arazo gehiago eragiten ditu.

37. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 19. lerrokada kentzekoa.

Zioak: Ezin da saihestu ezen langile horiek ezauzgarri bereziak dituztela, Nafarroako gainontzeko funtzionarioen araubide orokorrean sartzeko aukeratik bereizten dituztenak, eta nahigabeko nahasbidea sor daiteke, bai eta eskumen-gatazka ere.

Foru Lege proiektua, Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUAREN ELEDUNAREN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Batzordeak Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko abenduaren 4ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuaren Eledunaren Batzordeak 2010eko otsailaren 23an eta martxoaren 1ean eginiko bileretan onetsia.

Foru Lege proiektua, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak foru lege hau onetsi den egun berean onetsi du Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzeari buruzko Foru Legea. Haren proiektuaren 4. artikuluan Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean egin beharreko aldaketak jaso ziren. Aldaketa horiek, ordea, bereizi eta foru lege honetara ekarri dira; izan ere, foru lege hori aldatzeko beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoak onestea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 20.2 eta 18.2 artikuluan eta Nafarroako

Parlamentuko Erregelamenduko 151. artikuluan xedatuaren arabera.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea Barne Merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/11/EE Zuzentzura egokitzea helburu, honela geldituko dira foru lege horretako ondoko manuak:

Bat. 92. artikulua testu hau izanen du:

“92. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateek ahal den informazioz zabalena eskainiko dute bere jardunaz, eta herritar guztiek herriko bizitzan parte hartzea erraztuko dute. Era berean, elkarteak bultzatu eta herritarrek toki administrazioan parte hartzeko erakundeak sustatuko dituzte

Parte hartzeko elkarte eta erakundeak eta toki entitateen arteko harremanak erregelamendu organiko baten bidez arautuko dira.

2. Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz finkatzen dituzten partaidetza moduek, bitartekoek eta prozedurek ezingo dituzte gutxietsi lege araututako ordezkari-entitateen dagozkien erabakitze ahalmenak.

3. Aurreko zenbakian aipatzen diren partaidetza moduak garatzeko, elkarte eta erakunde horiei ekitaldiei buruzko ahalik eta informazio zabalena emanen zaie, eta bultzatuko da entitatearen kudeaketan parte har dezaten, aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera. Horretarako, legezko aitortpena duten herritarren partaidetza-elkarteek onura publikoko deklarazioa jasotzen ahalko dute.

4. Halaber, toki entitateek, eta bereziki udalek, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera elkarreragilea bultzatu beharko dute, herritarrekiko partaidetza eta komunikazioa errazteko, agiriak aurkezteko eta herritarren kontsultak, inkestak nahiz tramite administratiboak egiteko, haiek arautzen dituen foru legearen esparruan.

5. Zerbitzu jarduerak libreki jarri eta betetzeari buruzko arauen esparruan sartutako zerbitzu jarduerak jarri eta betetzeko prozedura eta trami-

teen kasuan, zerbitzu emaileek leihatila bakarra erabiliz bete ahal izanen dituzte, bide elektronikoz baliatuz eta urrutitik, zerbitzua emateko erabiltzen diren tokiak edo ekipoa ikuskatzeko tramitea denean salbu.

Era berean, toki entitateek sustatuko dute zerbitzu emaileek aukera izan dezaten leihatila bakarrean lortzeko jarduera jarri eta betetzeko garrantzitsuak diren informazioa eta inprimakiak, bai eta euren eskaerei dagokienez agintari eskudunek emandako ebazpenen eta gainerako jakinarazpenen berri izateko ere.

6. Foru Komunitateko administrazioak laguntza ematen beharko die artikulu honetako 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritakoa behar bezala garatu ezinik gertatzen diren entitateei, ekonomia eta kudeaketa arloan gaitasunik aski ez badute.

7. Foru Komunitateko Administrazioak ziurtatuko du leihatila bakarra bide elektronikoz baliatzean araudi indarduna betetzen dela nafar herritarren hizkuntza eskubideei dagokienez.”

Bi. 180. artikulua testu hau izanen du:

“180. artikulua.

1. Esku hartzea ondoko bitartekoen bidez gauzatu ahalko da:

a) Ordenantza eta Bandoak.

b) Aldez aurreko lizentzia eta beste kontrol ekintza batzuk eskatuta. Halere, zerbitzu jarduerak libreki jarri eta betetzeari buruzko arauen aplikazio esparruan sartutako zerbitzu jarduerak jaso eta betetzea arau horien menpe egonen da.

c) Aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizuneko aitortpena eskatuta, oinarritzko legerian xedatutakoarekin bat.

d) Jarduerari ekin ondorengo kontrola ezarrita, jardueraren gaineko araudia betetzen dela egiaztatzeko.

e) Egintza bat bete edo debekatzeko manu diren banakako aginduak.

2. Beste administrazio publiko batzuek emandako lizentziek edo baimenek ez dituzte titularrak salbuesten kasuan kasuko toki entitateen lizentziak eskuratzeko beharretik; edozein kasutan ere lege sektorialetan xedatutakoa bete beharko da.

3. Administrazioak partikularren jardueran esku hartzeko xedapen orokorrei eta egintza bakanei buruzko eraentza juridikoa, baita haiek erabakitze-prozedura ere, foru lege honen bederatzigarren titularen I. kapituluak izaera orokorraz agintzen duenari lotuko zaio.”

Hiru. 319. artikuluan 4. idatz-zatia ezabatu da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe geratuko dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak

Azken xedapenetan lehenengoa. Erregela-menduzko ahalmena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indar-hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena.

FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAJETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak Nafarroako Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 1373 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2009ko abenduaren 4ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak 2010eko martxoaren 2an eta 4an egintako bileretan onetsia.

Foru Lege proiektua, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea onetsi zuen, Foru Komunitateak garapen bidean dauden herrialdeekin elkartasunez jokatzeko politika publikoa arautzeko.

Nafarroako Lankidetzarako lehenengo Plan Zuzentzaileak bere ildo estrategikoen artean kudeaketaren kalitatea hobetzea sartu du, eta beste helburu estrategiko batzuen ondoan dago Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren aldeko diru-laguntzen arloan indarra duen araudia egokitu eta garatzea.

Xede horretarako, beharrezkoa da Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea gaur egungo egoerari egokitztea, zenbait agindu aldatuz. Hala, IV. kapituluaren moldatuko da lehenik, Nafarroako Lankidetzarako Plan Zuzentzailearen arabera egokitzeko, bertan lankidetzarako aurreikusi diren modalitateak eta baliabideak jasoz. Halaber, ekitatearen printzipioa jaso da, jada ezarrita zegoen eraginkortasunaren printzipioaz gainera, garapenerako laguntza ofizia-

laren izaera banatzailea kontuan hartuta. Eta, kapitulu horretan berean sartu dira garapenerako lankidetzari dagokionez diru-laguntzen arloan beharrezkoak diren espezialitateak, laguntza hauek eraginkorragoak izan daitezzen eta onuraduentzat bideragarriagoak.

V. kapituluaren lankidetzarako eragiletzat jotzen dira garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, lankidetzarako funtsen 100eko 95 baino gehiago erakunde horiek kudeatzen baitituzte. Gainera, erakunde horiek nahitaezkoa izanen dute Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea, funts publikoak lortu nahi badituzte.

Zerga arloan, garapenerako gobernuz kanpoko erakundearen zerga araubidea fundazioen araubidearekin (uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean arautuarekin) parekatu da.

VI. kapituluaren estilo eta argitasun arrazoiengatik egin dira aldaketak, eta mugatu egin dira lankidetzarako kontu-sailekin ordaintzen ahal diren gastuak.

Azkenik, VII. kapituluaren aldatu da, garapenaren nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak eta zehapenak eguneratzeko, bai isunen zenbatekoak bai zehapen prozeduraren erregulazioa.

Artikulu bakarra. Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzea.

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen aldaketa hauek egin dira:

Bat. Honela idatzita agertuko da 3.h) artikulua:

“h) Garapenerako lankidetzaren arloan esku-menak dituzten Nafarroako administrazio publiko guztiak elkarlanean arituko dira, guztiek batera eskura dituzten baliabide publikoak ahalik eta hobekien aprobetxatzeko”.

Idatz-zati berria. Honela idatzita agertuko da 10. artikulua:

“10. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua

Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua Administrazioaren kide anitzeko organo aholku-emaila eta parte-hartzailea da, Nafarroako

Foru Komunitatearen nazioarteko garapenerako lankidetzaren arloko politika zehazterakoan.”

Bj. Honela idatzita agertuko da 11. artikulua:

“11. artikulua. Kontseiluan ordezkariak izanen dituzten entitateak edo organoak.

1. Kontseiluak departamentu eskuduneko kontseilaria izanen du buru eta honakoek izanen dute eskubidea bertan ordezkari izateko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, zeinak ez baitu inolaz ere izanen kideen gehiengoa, Parlamentuko taldeak (Nafarroako Parlamentuko kide diren edo ez diren ordezkarien bidez), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroan dauden unibertsitateak, Foru Komunitatean ordezkariak handiena duten sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak.

Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen kasuan, haien ordezkariak Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen Koordinakundearen barruan hautatuko da.

Kontseiluko kideak izendatzean, gizonen eta emakumeen ordezkariak paritarioa sustatuko da.

2. Kontseiluak lehendakariorde bat ere izanen du, kontseiluak berak hautatuko duena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari ez diren artetik.

3. Kontseiluaren barruan Batzorde Iraunkorra eratuko da. Beste batzorde edo lan taldeak ere eratu ahalko dira.

4. Kontseiluaren osaketa, antolamendua eta jardunbidea erregelamendu bidez ezarriko dira, Kontseiluan ordezkariak duten erakundeak entzun ondoren.

5. Batzorde Iraunkorraren eta, kasua bada, batzordeen eta lan taldeen osaketa, antolamendua eta jardunbidea Kontseiluaren erabaki bidez ezarriko dira, lehendakariaren proposamenari jarraikiz.

6. Kontseilua biltzen ahal izanen da gizarte entitateen ordezkariak eskatuta, erregelamendu bidez ezarriko denari jarraikiz.

7. Kontseiluak zilegi izanen du garapenerako lankidetzaren arloko adituen aholkularitza eskatzea.”

Hiru. IV. kapituluaren izenburua honako hau izanen da:

“IV. KAPITULUA Baliabideen esparrua”

Lau. Honela idatzita agertuko da 13. artikulua:

“13. artikulua. Garapenerako lankidetzaren modalitateak.

Nafarroako administrazio publikoak, garapenerako lankidetzaren esparruan, modalitate hauen bidez arituko dira:

a) Lankidetzak ekonomikoa: funts ekonomikoak erabiltzea giza garapen integral, parte-hartzaile eta jasangarrirako programak eta proiektuak sustatzeko, honako arlo hauetan: soziokulturala, instituzionala, ekonomiko-finantzariora, zientifiko-teknikoa, hezkuntzakoa eta ingurumenekoa; horietan gizarte zibilaren sendotzea bultzatuko da eta giza eskubideak errespetatuko dira.

b) Lankidetzak teknikoa: milurte honetako garapen helburuak lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak sendotzea bultzatzen duten proiektuetan laguntzea, bai eta herrialde pobretuen garapen endogenoan zuzenean edo zeharka aritzen diren pertsonen eta antolakundearen gaitasuna sendotzeko proiektuetan ere, aholkularitza teknikoaren, prestakuntzaren eta trebakuntzaren eta ikerketa aplikatuaren bidez, eta hori guztia Nafarroako eta herrialde bazkideetako profesionalen eta adituen artean ezagutza trukatzuz eta transferituz.

c) Laguntza humanitaria: laguntza ekonomikoa ematea dela hondamendi naturalengatik dela giza ekintzagatik larrialdian edo berehalako arrisku larrian dauden giza taldeak lagundu eta birgaitzeko proiektuei. Gainera, egoera horietan dauden giza talde zaurgarrien bizitza babesteko helburua ere badu, xede bereizezinak baitira laguntza, babesa eta prebentzioa.

d) Garapenerako hezkuntza: garapenerako hezkuntzako programak eta proiektuak egitea, bai eta iritzi publikoa eta Nafarroako gizarte oro har sensibilizatzeko ekintzak eta kanpainak ere. Horiek guztiak garapen bidean dauden herrialdeen egoera ulertzera eta haiekiko elkartasuna bultzatzera bideratuta egonen dira. Eragin eta konpromiso politiko eta sozialeko ekintzak ere sartzen dira, bai erakunde publikoenak bai gizarte zibilarenak; eta jarrera etiko eta arduratsuak bultzatzen dituzten ekintzak.”

Bost. Honela idatzita agertuko da 14. artikulua:

“14. artikulua. Jarduteko baliabideak.

Foru lege honetako aurreko artikuluan deskribatu diren garapenerako lankidetzak modalitateak gauzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek honako baliabide hauek izaten ahalko dituzte jarduteko, eta horiek erregelamendu bidez garatzen ahalko dira:

a) Garapenerako lankidetzak ekintzak sustatzeko funts publikoak erabili ahal izatea.

b) Nafarroako administrazio publikoen lankidetzak teknikoak, dela bakarka arituz dela Espainiako aldebiko lankidetzarekin eta alde askotako lankidetzarekin batera arituz.

c) Erakundeen adierazpenak, eta garapen orokor, iraunkor eta harmonikoa sustatzen duten herri ekimenei laguntza ematea.”

Sei. Honela idatzita agertuko da 15. artikulua:

“15. artikulua. Eraginkortasuna eta ekitatea.

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 5.1 artikuluan ageri diren printzipioez gainera, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko diru-laguntzak ekitatearen printzipioari eta aberastasuna birbanatzearen printzipioei jarraikiz emanen dira, foru lege honen 3. artikuluan aipatzen den izaera solidarioarekin bat.

2. Helburuak hobeki erdiesteko eta baliabideei etekin handiagoa ateratzeko, Nafarroako administrazio publikoek kofinantziario araubidean egiten dituzte ekintzak, lehentasunez; zilegi izanen dute zenbait administrazioen ekarpenekin funtsak eratzeko programa edo proiektu komunetarako, eta, bestalde, garapenerako lankidetzan ari diren eragileen arteko informazio trukea bultzatuko dute.”

Zazpi. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua:

“16. artikulua. Garapenerako lankidetzan aritzeko diru-laguntzak.

1. Garapenerako lankidetzan aritzeko diru-laguntza guztiak azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen xedatutakoaren arabera izanen dira, eta espezialitate hauetakoak:

a) Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan kontrarik agertzen ez bada, aurrerakin gisa ordainduko dira.

b) Baldin eta diru-laguntzen aurrerakinak 1.000.000 eurokoak edo handiagoak badira urtean, beharrezkoa den kalifikazioa eduki beharko da edo, bestela, bermeak ezartzea eskatu ahal da. Kopuru txikiagoak izanez gero, ez da beharrezkoa izanen bermeak ezartzea.

c) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, diru-laguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat.

Ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen

ahal da, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

d) Baldin eta, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaz gain, funts edo baliabide berekiak nahiz pribatuak edo bestelako diru-laguntza publikoak erabiltzen badira jarduerak kofinantzatzeko, frogatu egin beharko dira funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretara aplikatu izana, entitateak berak emandako ziurtagiriaren bidez funts pribatuen kasuan edo zenbatekoa eta proiektua zehazten dituen aldeko ebazpenaren kopiararen bidez diru-laguntza publikoen kasuan.

e) Tokiko bazkidea nazioarteko erakunde bat bada, Espainiak izenpetutako nazioarteko akordio edo itunetan lege ezarritako moduan eman beharko ditu kontuak.

Letra berria). Laguntzak hartzen dituzten herrialdeetako toki entitateen agiriak egiaztatzeari dagokionez, elkarrekotasun printzipioa errespetatuko da, haien baliabide fisiko eta materialen errealitatea aintzat hartuta. Ez da inolaz ere eskatuko Espainiako administrazio publiko bati eskatzen zaiona baino agiri gehiago, non eta Kanpo Arazoetarako Ministerioak kontrakoa gomendatzen ez duen.

f) Deialdietako oinarrietan ezarri ahal da frogagiri gisa onartzea kontabilitateko auditoretzak, baldin eta kontuen zinpeko aztertzaileek eginak badira.

Kontu-auditoreek atzerrian aztertzen badituzte justifikazio-kontuak, azterketa egiten den herrialdean jarduten duten auditoreek egin ahal dute azterketa hori, baldin eta herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubidea badago.

Herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubiderik ez badago, han kokatutako auditore batek egin ahal da artikuluan honetan aurreikusitako azterketa, baldin eta Foru Administrazioako organo emaileak berresten badu, hartzailearen proposamenari jarraikiz, haren izendapena, behar bezalako kalitatea ziurtatzen duten irizpide teknikoekin bat.

2. Edozer arrazoi dela eta, Nafarroako aurrekontu orokorretan ezarritako lankidetzak-funtsaren gerakin bat baldin badago esleitu gabe, diru-laguntzetarako presako deialdia egiten da berriz ere, Nafarroako Garapeneraren aldeko Lankidetzari buruzko Foru Legearen ezarritakoan oinarrituz.

Epeei dagozkien arrazoiengatik nahiz beste inguruabar batzuegatik beste deialdi hori egitea ezinezkoa baldin bada, gerakineko kopuru esleitu gabea Nafarroako Foru Komunitateko Administra-

zioaren Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak kudeatuko du zuzenean.

3. Deialdietako oinarrietan zehaztu beharko dira gehieneko epeak, emandako diru-laguntzen balorazioa, ebazpena, azken txostena eta ordainketa egiteko. Prozesu eta epe horiek egokiak eta duden lankidetzatresnei eta errealtateei egokituak izan beharko dute

Idatz-zati berria. Deialdian ezarritako ebazpen eta ordainketa-epeak betetzen ez badira, emandako kopurua handitu beharko du Administrazioak, entitateek ordaindu behar izan dituzten banku-abalen kostua jaso arte hain zuzen ere.

5. Foru Komunitateko Administrazioak behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak ezarriko ditu funts publikoak erabiltzean legezotasuna eta eraginkortasuna berma daitezen, Comptos Ganberak legez bere dituen eskumenak ezertan galarazi gabe”

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 19. artikulua:

“19. artikulua. Lankidetzaren eragileak.

Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzaren eragileak ondoko hauek izanen dira:

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

– Nafarroako toki administrazioak.

– Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eratuta dauden eta irabazi asmorik ez duten entitate pribatuak, baldin eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa -beraien estatutuen edo dokumentu baliokidearen arabera- badute garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa esparruekin -foru lege honen seigarren artikuluan aipatuekin- lotutako jarduerak gauzatzea. Erakunde horiek Nafarroako Foru Komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan dituen solaskide iraunkorrek eta lehentasunezkoak dira; solaskidetasun hori foru lege honen 11. artikuluan xedatutako arloan da eragingarria.

– Entitate eta pertsona juridikoak, beren berariazko helburua garapenerako lankidetzat bada, nahiz eta xedeetan irabazi asmoa izan; dena den, irabazi asmoa ez dute aplikatzen ahaliko garapenerako lankidetzaren jardueretan, foru lege honen 3. artikuluko i) atalean ezarritako doakotasunaren printzipioari jarraikiz.

– Garapen bideko zein herrialderekin ezarritako lankidetzat, herrialde horietako tokiko bazkideak edo kontraparteak”

Bederatzi. Honela idatzita agertuko da 21. artikulua:

“21. artikulua. Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen erregistroa.

Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan inskribatzea ezinbesteko baldintza da administrazio publikoek ematen dituzten diru-laguntzak edo garapenerako laguntza ofizial gisa konputatzen direnak jasotzeko.”

Hamar. Honela idatzita agertuko da 22. artikulua:

“22. artikulua. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta haientzako ekarpenen zerga araubidea.

1. Fundazioen tributu araubidea, uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergari, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Toki Tributuei dagokienez, foru lege honen 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei.

2. Foru lege honen 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak gizarte laguntzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17 artikuluan ezartzen den salbuespena izateari begira.

3. Pertsona fisiko eta juridikoek 21. artikuluan aipatutako erregistroan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei egiten dizkieten ekarpenek eskubidea emanen dute uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legearen II. tituluko I. eta II. kapituluetan aipatzen diren pizgarriak izateko, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoa kontuan hartuta.

4. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatutako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei aplikatu beharreko zerga araubidea, uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean eskatutako baldintzak betetzen ez direnean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko XII. kapituluaren ezarritakoa izanen da.”

Hamaika. Honela idatzita agertuko da 24. artikulua:

“24. artikulua. Administrazio publikoetako langileak.

1. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek zilegi izanen dute garapenerako lankidetzaren ekintzetan parte hartzea, bai administrazio horien beren programetan edo proiektuetan bai garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko erakundeen edo beste administrazio publiko batzuen programa edo proiektuetan.

2. Langile horiek beren administrazio publikoaren programa edo proiektuetan parte hartzen dutenean, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie, eta jarduneko zerbitzuan jarraituko dute ondorio guztietarako, non eta horrek ez dakarren beren lanpostuan ordezkatu beharra.

Kasuan kasuko administrazioak garapenerako nazioarteko lankidetzari begira jartzen dituen kontu-sailen kargura ordainduko dira langile horien parte-hartzeak sortzen dituen joan-etorri, mantenu eta material kostuak.

Administrazio publiko bakoitzak komeni diren aseguru osagarriez hornituko ditu langileak, kasuan kasuko programen edo proiektuen aurrekontuaren kargura.

3. Langile horiek boluntario edo borondatezko lankide gisa parte hartzen badute Nafarroako administrazio publikoen funts publikoekin finantzatutako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen proiektuetan, nazioarteko erakundeen proiektuetan edo beste administrazio publiko batzuen proiektuetan, eta parte-hartze horrek urtean hila-bete baino gehiago irauten badu, lanpostuan ordezkatu beharra izan edo ez, zerbitzu berezi-eta pasatuko dira, aplikatzekoa den araudian administrazio egoera horretarako ezarritako ondorioekin; eta parte-hartze hori boluntarioekin egiten bada, urtean hila-bete edo gutxiago irauten badu, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie langileei antolamendu arloko beharrezanek horretarako bide ematen badute, eta ezezkoa ematen bada, berriz, behar bezala arrazoitu beharko da.

Langile horiek zein departamentukoak diren, departamentu horrek hartu beharko ditu bere gain egoera horietatik heldu diren langile-kostuak, eta nazioarteko erakundeek definitutako Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizial gisa hartu ahalko dira.”

Hamabi. Honela idatzita agertuko da 29. artikuluen 1. idatz-zatia:

“29. artikulua. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak.

1. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak dira foru lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoari kontra egiten dioten egite edo ez-egite guztiak.”

Hamahiru. Honela idatzita agertuko da 33. artikulua:

“33. artikulua. Zehapenak.

1. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak ondokoaren arabera zehatu-ko dira:

1.1. Arau-hauste oso larriek 10.000 eurotik 150.000 eurora bitarteko isuna izanen dute. Zehapenak ezartzeko eskumena duen agintaritzak erabaki dezake, horrez gain, foru lege honen 6. artikuluari dagozkion jardueren finantziatorako diru-laguntzak lortzeko eskubidea kentzea hiru urtetik bost urtera bitarteko epean.

1.2. Arau-hauste larriek 6.000 eurotik 9.999 bitarteko isuna izanen dute. Zehapenak ezartzeko eskumena duen agintaritzak erabaki dezake, horrez gain, foru lege honen 6. artikuluari dagozkion jardueren finantziatorako diru-laguntzak lortzeko eskubidea kentzea urte batetik hiru urtera bitarteko epean.

1.3. Arau-hauste arinek 600 eurotik 5.999 euroa bitarteko isuna izanen dute, eta gainera ohartarazpena.”

Hamalau. Honela idatzita agertuko da 36. artikulua:

“36. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan ezarritakoa izanen da.”

Hamabost. Bigarren xedapen gehigarria horrela geldituko da.

“Bigarren xedapen gehigarria. Salbuespenezko eta lehentasunezko laguntzak.

Edozein motatako hondamenditatik heldu diren salbuespenezko inguruabarrak edo egoerak gertatzen baldin badira, Nafarroako Gobernuak bereziki hartuko ditu kontuan inguruabar horiek garapenerako lankidetzara bideratutako laguntzak eta herrialdea berreraikitzen laguntzen duten proiektuak sustatzera kudeatzerakoan.”

Hamasei. Azken xedapenetako bigarrena honela idatzita agertuko da:

“Azken xedapenetako bigarrena.

Baimena ematen zaio garapenerako lankidetzaren arloko kontseilari eskudunari, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluari entzun ondoren, epez epe berritzeko foru lege honetan ezarri diren isunen zenbatekoak.”

Lehen xedapen iragankorra. Hasitako prozeduretako diru-laguntzen tramitazioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasi diren diru-laguntza prozedurek aurreko legeriaren araberrako tramitazioarekin segituko dute, nahiz eta horrek ez duen galaraziko foru lege hau aplikatzea onuradunentzat egokiagoak diren arloetan.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege honek indarra hartu eta lau hilabete-ko epean, erregelamendu bidez garatuko da bermeen sistema, hau da, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 16. artikuluko b) atalean aipatzen dena.

Azken xedapen berria.

“Foru Lege hau indarrean sartu eta sei hilabete-ko epean onetsiko da Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osaera eta jardunbidea arautuko duen erregelamendua.”

Azken xedapenetan bigarrena. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldien ondorioetarako, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiaren 3. zenbakia honela idatzita agertuko da:

“3. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Erregistroan inskribatuak nahiz erregistro horretan inskribatu gabe egon arren inskribatzeko eskabide formala egin dutenak, fundazioaren edo elkar-tearen forma juridikoa badute eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte.

Inskribaturik ez daudenen kasuan, inskribatzeko eskabidea egiten denetik sei hilabete igarota inskripziorik egin ez badute, lortutako onura fiskalak eta eskubideak ezeztatuko zaizkie.”

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholde, haizete indartsu eta abarren ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzko Foru Legean xedatutakoa aplikatu dakien Lodosan eta Sartagudan maiatzaren 24ko ekaitzak kaltetutakoei

1. Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen du 2009ko maiatzaren 24an izandako txingor ekaitzak, zeinak kalteak sortu baitzituen Lodosan eta Sartagudan bereziki, kaltetutako pertsona fisikoek eta juridikoek laguntza jaso ahal dezaten, aipatu foru legearen esparruan aintzat hartutako pertsonen baldintza beretan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kaltetu horiei laguntza eman diezaien, aipatu foru legean ezarritakoari jarraikiz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D ereduan ikasteko modua izan dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D ereduan ikasteko modua izan dezaten."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan jarri beharreko neurriak, Beriainen D ereduan ikasteko modua izan dezaten

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak hartzera Beriain herrian D ereduko irakaskuntza ahalbidetu dezan. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraiorako eta jantokirako dirulaguntzak eman diezazkien beren seme-alabak beste herri batzuetako D ereduko ikaste-txeetara bidaltzen dituzten familiei, euskaraz ikasteko eredu hori ezartzen ez den bitartean.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio ziurta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio ziurta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan." Horren jatorria da Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako mozio bat, 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio ziurta ditzan Gizarte Zerbitzuen Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen Foru Dekretuaren aurreproiektuan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zehatz dezan, oinarritzko gizarte-zerbitzuen programak eta finantzaketa arautzen dituen foru dekretuan, gizarte-zerbitzuen oinarritzko barruti bakoitzean existitu behar diren gutxieneko ekipoak, 2008-2012 eperako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan xedatuari jarraikiz.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru dekretu horrek berma die-

zaien oinarrizko gizarte-zerbitzuei, gutxienez ere, 2009an jasotzen ari ziren finantzaketaren guztizko zenbatekoa.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du arautu ditzan mendekotasunen bat

duzen pertsonentzako Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzuaren finantzaketa-modua eta koordainketaren gutxienekoak, ikusirik Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legeak xedatzen dutena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du ondoko neurriak har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera:

1. Osasun zerbitzuen koordinazioa eta integrazioa hobetzea:

a. Maiztasunaren igoera desegokiak eragiten dituzten eraginkortasun ezak gutxitzea (hitzordu errepikatuak, probak alferrik errepikatzea eta abar).

b. Hitzorduak berresteko sistema bat ezartzea, hitzordura agertzen ez diren gaixoen kasuak murrizteko eta kontsulta denbora galtzea ekiditeko.

c. Oinarrizko laguntza zerbitzuko ebazteko ahalmena handitzea: espezialitate desberdinetarako oinarrizko laguntzaren eta laguntza espezializatuen arteko batzordeen funtzionamendua hobetzea, protokolo klinikoak zehaztea patologia nagusietan eta deribazio irizpideak ezartzea.

d. Praktika klinikoaren aldagarrtasuna murriztea eta protokoloen eta praktika klinikorako giden eguneratzea sustatzea, horretarako kontuan hartuta profesionalen laguntza.

2. Artatze-ekoizpena hobetzea eta areagotzea: jarduna areagotzea.

a. Zentro berekietako zerbitzuen ekoizpena areagotzea: ospitale publikoetako kudeatzaileek ospitaleko itxaron-zerrendei buruzko ekintza plan bat prestatuko dute urtero, produkzio-ahalmena optimizatze aldera:

– Baliabide arruntekin egin beharreko jarduna areagotzea: zentroko programa-kontratuan jasotako baliabide arruntak erabilia jarduna areagotzeko eta errendimendua eta eraginkortasuna hobetzeko aukerak berreskuratzea eta itxaron-zerrenda duen zerbitzu bakoitzaren helburuei buruzko hitzarmena.

– Baliabide gehigarri egituratuekin egin beharreko produkzioa: jasoko dira zentroak, kasuko finantzaketa gehigarriarekin –itxaron-zerrendei buruzko kontusaila– bere gain hartu ahalko dituen jardueri buruzko proposamen zenbatekotuak eta xehatuak.

– Arratsaldeko ordutegian egin beharreko jarduerak: zentroetako kudeatzaileek aztertu behar dituzte beharrezkoak diren jarduerak ebakuntza-gelen eta kanpoko kontsultetarako eta proba osagarriak egiteko erabiltzen diren gelen erabilera ahalik eta gehien optimizatzeke, baliabide egitu-

razko osagarriekin, 00:00etara arte erabil daitezten.

– Ospitale publikoek berariazko plan bat zehaztuko dute uda sasoirako, Gabonetarako eta Aste Santurako, urtaro horietan itxaron-zerrendak areagotzea saihesten ahalegintzeko. Sasoi horietan goiz eta arratsaldeko lanaldia bultzatuko da.

– Ospitaleetako kudeatzaileek arratsaldeko lanaldia egiteko planak prestatuko dituzte hiru hilabetetik behin, halakorik beharrez gero aplikatzeko aldera. Plan horiek neurri ezohikotzat hartuko dira, eta ez egiturazkotzat, langile falta edo ohiko lanaldian gerta daitekeen jarduera falta betetzeko, eta jasoko dituzten ordainsariak aldizkakoak izanen dira. Halako programak egiten direnean, beharrezkoa den programazioa eta kontrola ahalbidetuko duten azterlanetan oinarrituko dira, nahi ez diren ondorioak ekidite aldera.

– Plan horiek kudeatzaileek soilik aurkeztu ahalgo dituzte, hobekuntzarako helburu zehatzei erantzun beharko diete, eta zehaztasunez azaldu beharko dituzte egin beharreko jarduera, finantzaketa osagarria eta planaren ezaugarriak. Berariazko plan horiei baimena emanen zaie zentroen kudeaketa-planetan jasotako ohiko jarduna betetzen badira, eta horiekin batera gaixoen optimizazioarako plan bat jarriko da abian. Erregelamendu bidez arautuko dira, modu egoki eta homogeenan, jardueraren ondoriozko ordainsariak. Halaber, jardueraren kontrol ekonomikoa muturreraino eramanez, prozesuen egiazko kostua zehazte aldera.

b. Zentro eta zerbitzu itunduekiko lankidetzak eta Prestazio eta Itunen zerbitzuaren parte-hartze aktiboa sustatzea. Hiru hilabetetik behin prestatuko dira gaixoak zentro itunduetara bidaltzeko planak, zeinetan sartuko baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleek nabarmenki hartu ezin dituzten prozesu patologiko eta proba osagarriak.

3. Kirurgiako itxaron-zerrenden kudeaketa hobetzea

a. Arauz zehaztea pertsona bat, ospitale bakoitzean, arduratuko dena jarduera kirurgikoaren, proba osagarrien eta kanpoko kontsulten arloko itxaron-zerrenda prestatu, jarraitu eta mantentzeaz. Arduradun hori ospitaleko zuzendari/kudeatzailearen mendean egonen da eta parte hartuko du ospitale bakoitzeko programazio kirurgikoko batzordean.

b. Gaixoak itxaron-zerrendan sartzeko prozedurak ezarriko dira eta indarrean dagoen araudia betetzen dela zainduko da. Ospitale bakoitzeko

itxaron-zerrendaren arduradunari dagokio horren ardurak, baita araudia betetzeko eskatzea ere.

c. Ospitale bakoitzeko arduradunak zentroko prozedurari buruzko eskuliburu bat prestatuko du, itxaron-zerrendaren jarraipena egiteko eta hura eguneratzeko eta orrazteko.

d. Hilean behin, ospitaleko zuzendaritzak argitaratu emanen du ospitaleko itxaron-zerrendaren egoera, zeina erabiltzaileen eta profesionalen eskura egonen da Nafarroako Gobernuaren webgunean.

4. Administrazioaren egitura aldatzea eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza espezializatuko itxaron-zerrendaren kudeaketa zentralizatzea.

a. Itxaron zerrendak murrizte aldera kontratatutako langileen ordainsariak ordaintzeko kontusailak kudeatzeko unitate zentral bat jarriko da abian, Nafarroako Osasun Agentziaren bidez. Itxaron-zerrendaren kudeaketa plan bat prestatuko da, kudeaketarako unitate zentralak ezarri, garatu eta ebaluatuko duena. Aipatu unitateak ondoko eginkizunak izanen ditu:

– Ospitaleetako kudeatzaileek prestatutako jarduerak planetan jasotako proposamenak aztertzea.

– Proposamen eta txosten desberdinak ikusirik, Osasun Departamentuari proposatzea planaren helburuak erdiesteko beharrezkoak diren jarduerak bolumenak eta baliabideak.

– Beste ospitale pribatu batzuetara bidaltzea ospitale berekietan artatu ezin daitezkeen gaixoak, eta, hala, Itxaronaldien Bermeei buruzko Legean ezarritakoa betetzea Prestazio eta Itun Zerbitzuaren bidez.

– Ospitaleen arteko gaixo mugimenduari lotutako fluxu ekonomikoaren esleipen-irizpideak proposatzea.

– Ospitale bakoitzeko planen jarraipen zentralizatua egitea eta itxaron-zerrenden gaineko jarduerak planen finantzaketa ekonomikoa loturiko aurrekontuen betetzea kontrolatzea eta haren jarraipena egitea.

– Osasun zentroek, espezialitate medikoek eta batzorde zientifikoek eskatuta, unitate zentraleko arduradunak itxaron-zerrendan sartzeko irizpideak proposatuko ditu.

– Zuzendaritzan nagusiak proposamenari esleitzen dion beste edozein eginkizun, itxaron-zerrendei buruzko planarekin zerikusia badu. Itxaron-zerrenden kudeaketa plana baimentzeko eta haren jarraipena eta ebaluazioa egite aldera,

beharrezkoak diren langile teknikoak eta administrazioak atxikiko zaizkio aipatu unitateari, esleituta dituen eginkizunak betetzeko.

Itxaron-zerrendak kudeatzeko ospitaleetako batzorde teknikoak sortzea eta abian jartzea. Osasun arloko langileen parte-hartze handiena lortze aldera, batzorde tekniko bana sortuko dira Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako osasun barrutietan. Batzorde horiek aholkularitza eginkizunak izanen dituzte eta jarduerak proposatuko dizkiote ospitaleko zuzendaritzari itxaron-zerrendak hobeto kudeatzeko estrategiak garatzeko, eskaerak kontrolatu eta osasun arloko eskaintza hobetze aldera. Batzorde horietan parte hartuko dute Vianako Printzea kanpo-kontsultetarako zentroko arduradunak, zentroetako gaixoari laguntza emateko zerbitzuko arduradunek, zentroetako itxaron-zerrendaren kudeaketaren arduradunek, zentroetako

zuzendaritza medikoek eta erregelamendu bidez ezarritako atalburuek.

5. Itxaron-zerrenden kudeaketari buruzko ebaluazio jarraitua egiteko tresnak eta mekanismoak garatu beharko dira, eta ezarritako zuzentze-neurriak agirietan jasoko dira. Halaber, berandutzearen eta haren arrazoen jarraipen zehatzagoa eginen da eta horiei buruzko neurriak hartuko dira.

6. Aztertu beharko dira itxaron-zerrendak sortzea eragiten duten faktoreak. Halaber, patologia garrantzitsuenen azterketa xehakatu eginen da, diagnostikoen arabera, eta antolamendua hobetzeko proposamenak eginen dira, itxaron-zerrenden arazoa konpontze aldera.

7. Egoeraren ikuspegi egokia izate aldera, inkestak eginen zaizkie gaixoei eta fakultatiboei, sistemaren funtzionamenduaren asebetetze-maila ezagutzeko xedearekin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan errekurtsua jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan errekurtsua jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka." Horren jatorria da Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan errekurtsua jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Erronkariko Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emailearekin lankidetzan, behar den ekimenak sustatu eta har ditzan ahalbidetzeko Europako Batzordeak baimena eman dezala Erronkariko gazta egiteko prozesuan Lacaune eta Assaf arraz berriak ere sartzea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, alpatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza arloko prezioen

behatoki publiko bat sor dezan, ondokoa helburu: Nafarroan gehien ekoizten diren nekazaritza eta abeltzaintzako produktuek jatorrian duten kostuaren eta prezioaren ezagutza gardenetik abiatuta, elikagaien banaketan parte hartzen duten katebegiek –handizkako merkatariek, txikizkakoek eta merkataritzako eragile handiek– produktu horiek kontsumitzailearen erosketa-saskira iritsi bitarte dituzten egiazko marjinak ezagutzea.

2. Nekazaritza arloko prezioen behatoki publikoak ondokoak jasoko ditu: nekazaritzako produktuen ekoizpen-kostu garbia, jatorrian duten prezioa eta kontsumitzailearentzat duena, saltoki handiak, ertainak eta txikiak bereizita.

3. Nafarroako Gobernuak astero argitaratuko du informazio hori Interneten, halako moduz non sektoreko eragileek eta kontsumitzaileek kontsulta egiteko modua izanen baitute, merkatuari gardenetasuna ematea helburu, eta hedabideei helaraziko die informazio hori.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikus-entzunezkoen Plana presta dezan eta Euskalerrria Irratiari behin-behineko lizentzia eman diezaion.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikus-entzunezkoen Plana presta dezan eta Euskalerrria Irratiari behin-behineko lizentzia eman diezaion".

Legebiltzarrak 2010eko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2009ko abenduaren 18ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-
ei buruzko azterlan bat egin ditzan.**

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-
ei buruzko azterlan bat egin ditzan".

Legebiltzarrak 2010eko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko otsailaren 5eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zainketa aringarri-
ei buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan.**

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko otsailaren 25ean egindako bileran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarr parlamentu-taldek aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zainketa aringarri-
ei buruzko beste plan estrategiko bat presta dezan".

Mozio hori 2009ko abenduaren 11ko 120. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik aldatu diren “Nekazaritza ustiategiak modernizatzeke” eta “Nekazari gazteak beren gain hasteko” laguntzak emateko baldintzak.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik aldatu diren “Nekazaritza ustiategiak modernizatzeke” eta “Nekazari gazteak beren gain hasteko” laguntzak emateko baldintzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Nekazaritza ustiategiak modernizatzeke” eta “Nekazari gazteak beren gain hasteko” laguntzak martxoaren 5eko 72/2010 Foru Aginduan daude jasota. Laguntza horiek emateko baldintzak aldatu egin dira aurren; zergatik?

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen, Iberdrolaren akzioduna denez, izan dezakeen eragina baliatzeko Altsasuko Gamesa enpresak aurkezturiko enpleguko erregulazio-espeditentea ekidite aldera.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen, Iberdrolaren akzioduna denez, izan dezakeen eragina baliatzeko Altsasuko Gamesa enpresak aur-

kezturiko enpleguko erregulazio-espeditentea ekidite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasetan ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

EHN saldu eta Nafarroako Gobernuak erabaki zuen horren ondoriozko dirusarreraren zati bat Iberdrolan inbertitzea. Iberdrolak, berriz, partaidetza

handi samarra du Gamesan, eta Gamesak enpleguko erregulazio-espeditatea aurkeztu du Altsasuko lantegian.

Nafarroako Gobernuak, Iberdrolan partaidetza handi samarra duen akzioduna denez, ba al du asmorik izan dezakeen eragina baliatzeko espeditente hori ekidite aldera?

Iruñean, 2004ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen ezer egiteko hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren eta sorospen-osagarrien arloetan langabezian dauden pertsonen dagokienez.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasetan handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen ezer egiteko hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren eta sorospen-osagarrien arloetan langabezian dauden pertsonen dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako gaurkotasetan handiko galdera aurkeztu du, martxoaren 11rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak lehendakariak erantzun dezan:

Gainerako planez gain, esan nahi baita ekonomia suspertzeko plan orokorrean gain (Nafarroako Plana, Moderna Plana eta abar), bai eta orain bi urte baino lehenagokoak diren, hau da, egiturazko krisi ekonomikoa lehertu baino lehenagokoak diren enpleguaren sustapenerako planez gain (enplegu planak):

Ba al du Nafarroako Gobernuak asmorik ezer egiteko hezkuntzaren, osasunaren, etxebizitzaren eta sorospen-osagarrien arloetan langabezian dauden pertsonen dagokienez?

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko

